

Lamina eta artzaina

ilunabarrean: eguzkia sartu
eta laster, iluntzen hasten
duenean.

gaitza: handia.

Duela aspaldi, Euskal Herriko mendietan, Garazi aldean, artzain gazte bat bizi zen. Imanol zuen izena. Ardiekin eta Pastor xakurrarekin zagon mendian.

Behin batean, **ilunabarrean**, eguzkia gordetzen ari zenean, artzainak neska oso polita ikusi zuen, han, erreka-ondoan. Neska eder hura, harri baten gainean jarririk, ilearen orrazten ari zen :

– Egun on ! Zer duzu izena ? Oso pollita zara ! Zurekin ezkondu nahi nuke.

Neskak orduan Imanoli :

– Ederki ! Zurekin ezkonduko naiz baina zenbat urte dudan asmatu behar duzu lehenik. 15


Imanolek ihardetsi zion :

– Zenbat urte duzun ? Ongi, neska ; hori aise asmatuko dut !

Elkar agurtu eta, mutikoa etxera buruz abiatu zen bozkarioz betea. Etxean sartu zen eta ganbarara joan. Han gorderik bazituen ardi larru bat eta mozorro itsusi bat. Biak jantzi zituen. 20

Orain gure Imanol **gaitza** eta beldurgarria da. Gisa horretan mozorroturik, mendira buruz badoa.

Erreka ondoan, neska polit bera ikusten du, harri gainean jarria, ilearen orrazten ari. Hurbiltzen zaio eta oihu handi bat eginez, 25





buruz-behera jartzen da gure artzain beldurgarria. Neska orduan izitzen da eta goraki dio :

– Zer da mamu itsusi hori ! Hirurehun urte ditudala, sekula ez dut holako gauza itsusirik ikusi !

30 Orduan Imanolek bere buruari :

– Orain badakit zenbat urte dituen. Asmatua dudala erakutsiko diot bihar !

Gau hartan, etxera sartu eta, Imanolek amari mendian gertatua kontatu zion. Amak orduan :

35 – Neska polita dela erran duk eta... hirurehun urte dituela ? Ai, seme maitea, holakorik ez daitekek izan ! Hori ez dukek gu bezalako jendea. Eta... nolakoak ditu zangoak ? Ikusi dizkioka ?

– Ez, Ama, ez ! Ez dizkiot ikusi ! Zergatik ?

– Bestaldian, bihar, nolako zangoak dituen begiratu beharko duk. Ahatearenak bezalakoak baldin baditu, orduan kasu ! Neska hori... lamina duk ! Lamina ez duk gu bezalako jendea. Orduan ez haiz neska horrekin ezkontzen ahalko.

Biharamunean, Imanol mendira joan zen eta han, errekaren ondoan, belarren artean, ongi kukutu. Neska polita han zen, beti harri gainean jarriarik. Imanolek orduan neskaren zangoei behatu zien... Ahate zangoak zituen ! Ez zen besterik ! Neska polita... lamina zen !

Artzaina triste dago ; gogoa ilun etxera itzultzen da. Ohean sartu da jan eta edan gabe.

Egunak hola iragan zituen Imanolek, ohetik jaiki gabe. Medikua, herriko apezka eta auzoko lagunak ikustera etorri zitzaizkion. Baina Imanol gaixoa ohetik ezin atera.

Egun batzuen buruan hil zen.

Etxekoek, auzoko lagunek, denak negarrez, hilerrira eraman zuten, han ehorzteko.

Lamina politak dena ikusi zuen zuhaitz baten gibeletik. Jendea handik urundu orduko, hilerrira sartu zen eta Imanolen hilobi ondoan, bera ere negarrez ari izan zen. Lore sorta eder bat eskaini zion.

Biharamunean, Imanolen lagunek hilobitik iturriño bat jalgitzen ikusi zuten. Lamina politaren negarrek sortu iturria.

Egundaino agortu ez den iturri hori lamina politaren maitasunaren seinale duzu.

Egundaino : sekulan.

Elkar argitaletxeko *Zipristin 4* liburutik egokitua.

1. IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Non bizi zen artzaina ?
- Nolakoa da neska gaztea ?
- Zer jakin nahi du artzainak ?
- Nola egiten du horren jakiteko ?
- Zergatik Imanol ez da neska horrekin ezkondu ?
- Zer gertatzen zaio artzainari ?
- Nola bururatzen da ipuina ?
- Zer diozu ipuin honetaz ?

2. HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

► Irakurgai honetan lau pertsonaia aurkitzen dira. Imanol, ama, lamina eta xakurra. Bakoitzari doakion testua atzeman eta ondotik dena kopia.

Mendian bizi da artzainarekin eta ardiekin. Artzaina laguntzen du bere lanean. Pastor du izena.

Neska eder eta pollita da. Harri baten gainean ilearen orrazten ari da.

Imanolekin bizi da.


Artzain da mendian eta maitemindurik dago.

► Denboraren haria egizu eta hitz hauek behar bezala koka :

bihar / etzi / atzo / duela bi egun



► -txo/-ño eta -garri baliatuz eta hitz hauei lotuz, hitz berriak osa itzazu.



► Adibideari begiratu eta, beste lerroak osa itzazu.

Laguna ikusi dut. Sagarra jan duzu. Ura edan du. Liburua irakurri dugu. Gutuna idatzi duzu. Futbol partida irabazi dute.	Lagunik ez dut ikusi.
---	--

3. BESTE LAN BATZUK

► Kondaira honetan lau pasarte badira. Izenburu hauek idatz itzazu eta ordenan eman.

q Imanolek neskaren adina jakin du.

q Imanolen heriotza eta laminearen nahigabea.

q Imanolek neska ikusi du.

q Neska lamina da; Imanol harekin ezin da ezkondu.

► Pasarte hau idatz ezazu puntuazio hau behar den tokian emanez :



Egun on Zer duzu izena Oso pollita zara

Zurekin ezkondu nahi nuke